

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1116

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zinema-aretoek digitalizatzeko laguntzen 2011ko deialdiko enpresa onuradunen eta ukatutako eskaeren zerrendaren berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2011ko urriaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kultura Ministerioak lankidetzeta-hitza emana izenpetu zuten 2011 ekitaldirako, Autonomia Erkidegoen bitartez, zinema erakusketarako aretoei laguntzak emateko.

2.– 2011ko urriaren 27an argitaratu zen EHAAn 2011ko urriaren 26ko Kulturako sailburuaren Agindua, zinema-aretoak digitalizatzeko laguntzak arautzen dituena.

3.– Aipaturiko 2011ko urriaren 26ko Aginduaren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntzak esleitzeko ebazpena interesdunei jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2011ko urriaren 26ko Aginduaren babesean emandako laguntzen enpresa onuradunen eta ukatutako eta artxibaturiko eskaeren zerrenda argitara ematea. Datu horiek eranskinean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 14a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

ZINEMA-ARETOAK DIGITALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

I.- Gehienez bost pantaila dituzten eta urteko programazioaren % 40 baino gehiago, Europako Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetarako modalitatea.

Eskatzaileen zerrenda, zinema-aretoa, herria eta emandako dirukopurua.

Eskatzailea	Zinema-aretoa	Herria	Pantailak	Laguntzak
Elgoibarko Udala	Herriko Antzokia	Elgoibar	1	34.225,00 €
Ermuako Udala	Ermua Antzokia	Ermua	1	16.257,00 €
Fundación Pública		Ordizia	1	
Herri Antzokia	Herri Antzokia			35.366,00 €
Jon Kepa Urlezaga Urlezaga	Lizeo Antzokia	Gernika-Lumo	1	31.373,00 €
Juan Carlos Oyanluce y Otros CB	Bastero Kulturgunea	Andoain	1	35.366,00 €
Oñatiko Udala	Oñatiko Zinema	Oñati	1	27.380,00 €
SA Deportes y Espectáculos	Cines Trueba	Donostia-San Sebastián	2	102.675,00 €
Tolosako Udala	Leidor Aretoa	Tolosa	1	35.936,00 €
GUZTIRA			9	318.578,00 €

2012ko martxoaren 8a, osteguna

II.- Gehienez bost pantaila dituzten eta urteko programazioaren % 35etik gora eta gehienez % 40a, Europako Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetarako modalitatea.

Eskatzaileen zerrenda, zinema-aretoa, herria eta emandako dirukopurua.

Eskatzailea	Zinema-aretoa	Herria	Pantailak	Laguntzak
Arrasateko Udala	Amaia Udal Antzokia	Arrasate	1	13.728,00 €
Serantes Kultur Aretoa	Serantes Aretoa	Santurtzi	2	51.407,00 €
Urbietza Egaña SL	Aita Mari Zinea	Zumaia	1	26.287,00 €
GUZTIRA			4	91.422,00 €

III.- Bost pantaila baino gehiago dituzten eta urteko programazioaren % 50a, gutxienez, Europako Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetarako modalitatea.

Eskatzaileen zerrenda, zinema-aretoa, herria eta emandako diru-kopurua.

Eskatzailea	Zinema-Aretoa	Herria	Pantailak	Laguntzak
Difusora Bilbao SL	Golem Alhóndiga	Bilbao	3	15.000,00 €
SA Deportes y Espectáculos	Cines Príncipe	Donostia-San Sebastián	3	15.000,00 €
GUZTIRA			6	30.000,00 €

ESKAERA EZEZTATUAK

ZINEMA-ARETOAK DIGITALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

III.- Bost pantaila baino gehiago dituzten eta urteko programazioaren % 50a, gutxienez, Europako Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetarako modalitatea.

Ezetsitako eta artxibaturiko eskabideen zerrenda.

Eskatzailea	Zinema-aretoa	Herria	Arrazoia
S.A. Deportes y Espectáculos	Cines Antigo Berri	Donostia-San Sebastián	Ezetsita